

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MIÑAOGUTXIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Miñaogutxiko bizitegitarako eraikinetan isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak

Miñaogutxiko Kontzejuak, 2022ko uztailaren 23an egindako bilkuran, erabaki du onestea Miñaogutxiko bizitegitarako eraikinetan isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak.

Jendaurreko 15 eguneko epea irekitzen da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edozein pertsonak espedientea aztertu eta, hala badagokio, egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzan.

Miñaogutxiko bizitegitarako eraikinetan isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak

1. Deialdiaren xedea

Miñaogutxiko Kontzejuak (Araba), biomasa galdarak jarriz eta ebaluazio energetikoko azterlanak eginez hasitako ingurumen hobekuntzako proiektua garatzeko, eta oinarritzat hartuta eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien aprobetxamendua, deialdi honen bidez, dirulaguntzak eman nahi dizkie herritarrei, kontzejuko bizitegi eraikinetan isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzeko, deialdi honetan arautzen den eran.

Oinarri hauek betez eta gauzatuz ematen diren dirulaguntzak, hala, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

2. Onuradunak

2.1. Deialdi honetako dirulaguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dira, apartatu honetan aurreikusitako salbuespenekin:

Pertsona fisikoa izatea, eta, gainera, lehendik Miñaogutxiko Kontzejuan zegoen bizitegi eraikin baten jabea izatea edo hura erabiltzeko eskubidea edukitzea alokairu edo gozamen kontratu bat medio, zeinak indarrean egon behar baitu dirulaguntza eskuratzeko eskaera aurkezten den egunean. Alokaturatuta egonez gero, agiri bidez frogatu behar da etxebizitzaren jabeak baimena eman duela eguzki plakak jartzeko.

- Miñaogutxin erroldatuta egotea.
- Adinez nagusia izatea.
- -- Berokuntza sistemei buruzko aurreko dirulaguntzarik jaso ez izana.

2.2. Ezingo dira izan dirulaguntzen onuradun Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan (BOE, 276 zenbakia, azaroaren 18koa) aipatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak, hala nola bete gabe edukitzea zerga betebeharrak.

3. Aurrekontu zuzkidura eta eskaerak aurkezteko epea

3.1. Deialdi honi deia egin duen erakundearen "isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzea" izeneko aurrekontu partida esleitu zaio. Emandako dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan, oro har, aurrekontuan izendatutako zenbatekoa baino handiagoa.

3.2. Dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea alegazio aldia amaitu ondoren hasiko da. Hasiera batean epe hori 15 egun naturalekoa izango da, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

4. Diruz lagundu daitezkeen jardunak eta dirulaguntzen zenbatekoa

4.1. Deialdi honen arabera diruz lagunduko diren jardunak Miñaogutxiko Kontzejuan kokatutako etxebizitza bakoitzean isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzeari dagozkionak dira.

4.2. Ezin diote heldu deialdi honi laguntza eman baino lehenagoko data duten ordainagiriak dituzten jardunek.

4.3. Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste herri administrazio batzuetatik edo erakunde pribatu batzuetatik jaso daitezkeen dirulaguntzekin; nolana ere, haien guztien artean ezin izango da gainditu isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzearen guztizko prezioa. Osterantzean, kendu egingo dira muga horretatik gora emandako zenbatekoak, edo itzuli egin beharko dira, eta, beraz, horretarako ezarritako lege prozedurak baliatu ahal izango dira.

5. Laguntzak eskatzea

Laguntza eskaera onuradun izan daitekeen pertsonak aurkeztuko du, oinarri hauen eranskineko ereduari jarraituz, Miñaogutxiko Kontzejuren batzar etxean.

Eskaera horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Jabetza erregistroaren ohar soilaren kopia, ekitaldi honen barruan emana, edo jabetza eskrituren kopia

6. Ebazpena eta jakinarazpena

6.1. Dirulaguntza Mahaia Miñaogutxiko Administrazio Batzarreko kideez osatuta egongo da; errejidorea mahaiburu arituko da eta fede emailea, berriz, idazkari. Dirulaguntza Mahaia eskaerak aztertu eta dirulaguntzak esleitzeko proposamena egingo du; horretarako, egoki jotzen duen laguntza tekniko eta juridikoa izan ahalko du.

6.2. Laguntzak emateko edo ukatzeko erabakia hemen jasotako baldintzen arabera ebatziko da, eta Miñaogutxiko Kontzejuko iragarki taulan argitaratuko den zerrendaren bidez jakinaraziko zaie eskatzaileei. Erabaki horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, eta/edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa, bi hilabeteko epean, zerrenda argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

7. Laguntzak ematea

Esleipena argitaratu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, onuradunak honako agiri hauek aurkeztu beharko dizkio kontzejuari:

a) Foru Ogasunarekiko zorrak ordainduta izatearen frogagiria.

b) Xede horrekin edo antzeko xedearekin jasotako eta/edo eskatutako beste dirulaguntza batzuei buruzko aitopena.

Hiru hilabeteko epea igaro eta ez baditu aurkeztu aipatutako agiriak, edo ez baditu egiaztatu dirulaguntza ematearen arrazoi izan ziren baldintzak, onuradunak dirulaguntza eskubideari uko egin diola esan nahiko du, eta, beraz, hura jasotzeko eskubidea galduko du.

8. Onuradunen betebeharrak

Dirulaguntza jasotzen duten onuradunek Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 14. artikuluan eta horrekin batera aplikatu beharrekoetan ezarritako betebeharrak izango dituzte, eta, batez ere, honako hauek:

- a) Dirulaguntzaren eta deialdi honen xedea betetzea
- b) Ezarritako betekizun eta baldintzak bete izana justifikatzea
- c) Dagozkion egiaztapen jarduerak egitea onartzea
- d) Xede bera edo antzekoa duten beste dirulaguntza batzuk lortu izana jakinaraztea
- e) Kontuak aurkeztea, hala badagokio, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo horretarako legezko baimena duten erakundeei

9. Ikuskapenak, baldintzak ez betetzea eta dirua itzultzea

9.1. Deialdi honetan eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako betekizun eta baldintzak bete ezean, ezeztatu egingo da dirulaguntza, ez-betetzeari dagokion espedientea egin ondoren, eta itzuli egin beharko zaio kontzejuari dagozkion legezko interesekin batera, Dirulaguntzen 38/2003 Legean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako baldintzen arabera.

9.2. Oro har, 60 hilabeteko gabealdia ezartzen da, laguntzak ematen diren egunetik aurrera. Epe horretan, onuradunak isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzen dituen etxebizitzaren jabe edo errentari izaten jarraitu beharko du. Baldintza hori betetzen ez bada, kontzejuari itzuli beharko zaizkio kontzeptu horrengatik jasotako laguntzak.

10. Interpretazioa, aplikazioa eta araudia

10.1. Deialdi hau administrazio zuzenbidearen alorrekoa da. Sortzen diren zalantza guztiak kontzejuak interpretatu eta ebatziko ditu, eta haren erabakiak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan ikuska daitezke.

10.2. Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, hauek xedatutakoa beteko da: Dirulaguntzen 38/2003 Legea eta haren arautegia, 887/2006 Errege Dekretuak onetsia; toki araubidearen legeria; Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Araua, eta dirulaguntza publikoen deialdiari, ebazpenari eta jarraipenari aplikatu ahal zaion beste edozein.

Miñaogutxi, 2022ko uztailaren 26a

Lehendakaria

JESÚS M^º LLANO LOIZAGA

Eranskina

Eskaera

.....andreak/jaunak, zeina adin nagusikoa baita,
..... NAN zenbakia baitu,eta honako helbide honetan bizi baita:
.....

Adierazten du

Miñaogutxiko bizitegitarako eraikinetan (Araba) isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzeko dirulaguntza deialdia ikusi da,

Deialdiaren oinarrietan eskatzen diren betekizun guztiak betetzen ditu, Honekin batera aurkezten ditu aurkeztu beharreko agiriak. Hortaz,

Eskatzen du

Eman dakiola etxebizitzan isurketa kutsatzailerik gabeko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema jartzeko dirulaguntza. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditu:

a) Jabetza Erregistroaren ohar soila, 2022koa.

Sin. Jabea:

Sin. Errentaria:

Jabeak baimena ematen dio errentariari deialdi honetan parte har dezan, eta adierazten du onartzen dituela oinarri hauetan ezarritako baldintzak.

Sin. Jabe baimen emailea:

Miñaogutxi, 2022koaren.....(a).